

Jakinarazten da honako dekretu hau eman dela:

**2026/324 DEKRETUA
2026/02/26**

“Gorka Artola Alberdik, Bergarako Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera, gaia aztertu eta ebazpena eman dut.

IKUSIRIK

2026ko otsailaren 20an emandako dekretu baten bitartez Bergarako udaleko alkateak erabaki zuen lehiaketa-oposizio irekiaren bidez Informatikako laguntzaile bat programa baten bitartez izendatzeko deialdia egitea eta horiek arautzen duten oinarriak onartzea (Espediente zenbakia: 2026LAAU0006).

KONTUAN HARTURIK

2026ko otsailaren 20ko datarekin Bergarako webgunean argitara eman ziren. Aurreikusitako izen ematearen epea martxoaren 8ra arte dela kontuan izanda, baina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidalitako iragarkia oraindik ez denez argitara eman, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikariak proposatu du 2026ko martxoaren 11ra arte epea luzatzea.

Hori guztia kontutan izanik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- Oinarriak aldatzea, eta honen bitartez zuzentzea:

Euskarazko bertsioan

Honela jasotakoak:

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskaera, eskabide-eredu ofizial eta normalizatuan egingo da, Bergarako Udalaren web-gunean (www.bergara.eus) “Udal lan eskaintza” ataletik modu elektronikoan bete eta aurkeztu beharko delarik, oinarri hauek Bergarako Udaleko web-orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 2026ko martxoaren 8ra arte.

Honela esango du:

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskaera, eskabide-eredu ofizial eta normalizatuan egingo da, Bergarako Udalaren web-gunean (www.bergara.eus) "Udal lan eskaintza" ataletik modu elektronikoan bete eta aurkeztu beharko delarik, oinarri hauek Bergarako Udaleko web-orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 2026ko martxoaren 11ra arte.

Gaztelaniazko bertsioan:

Honela jasotakoak:

La solicitud para participar en el proceso selectivo se realizará en el modelo de instancia oficial y normalizado, que deberá ser cumplimentado y presentado electrónicamente en la página web del Ayuntamiento de Bergara (www.bergara.eus) desde la sección "Oferta de empleo municipal", a partir del día siguiente a la publicación de estas bases en la página web del Ayuntamiento de Bergara hasta el 8 de marzo de 2026.

Honela esango du:

La solicitud para participar en el proceso selectivo se realizará en el modelo de instancia oficial y normalizado, que deberá ser cumplimentado y presentado electrónicamente en la página web del Ayuntamiento de Bergara (www.bergara.eus) desde la sección "Oferta de empleo municipal", a partir del día siguiente a la publicación de estas bases en la página web del Ayuntamiento de Bergara hasta el 11 de marzo de 2026.

Bigarrena.- Aldaketa Bergarako udalaren web orrian argitaratzea eta iragarki taulan.

Erabakiaren aurkako errekurtsuak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsua aurkez dezake, 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena):

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.*
- Non: Alkatetzara jo behar da.*

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.”

Eta behar diren ondorioetarako, jakinarazpen hau eman eta izenpetzen dut. Bergaran, sinadura datan.

Idazkaria
Xabin Juaristi Arrieta

